



Argazkian, San Pedroko errotonda berriaren garai bateko espektrua. Irudiarren denbora zehatza ez dugu antzeman, ezta makilaren goikaldean zintzilatua egon daitekeen Conchako banderaren urtea. Azken informazio berri eta espezializatuen arabera, akaso, 1880 eta 1906 urteetan USTEZ San Pedrok irabazitako bandera horietakoren bat izan daiteke.

Iraganari begirada

UR POTEA ATEAN

Jarraian lehengo haurrek egindako bihurrikeri (agian gaiztakeri) hau azalduko dugu. Ikusten dugun bezala ez da oraingo gauza, lehen ere egiten baitzuten haurrek.

Bi modu zeuden gaiztakeri hau egiteko. Lehenengoan, pote bat urez bete eta etxe baten atearen kontra jartzen zuten zertxobait okertua. Ondoren, atea jo eta korrika ateratzen ziren haurrak. Jakina, etxeoandreak atea irekitzerakoan ura etxe barrura sar-tzen zitzaion.

Bihurrikeri beraren beste bertsioa ere bazen. Funtsean gauza bera egiten zuten, baina potea urez bete ordez pixarekin betetzen zuten. Jakina, ondorioz etxeo lurra bustitzeaz gain sekulako kiratsa barreiatzen zen.

Bigarren moduan, pare-parean zeuden bi ate lotzen ziren. Ondoren, bakoitzaren kontra urez beteriko pote bana jartzen zen. Aldabak jo eta ziztu bizian abiatzen ziren haurrak. Bakoitzak bere atea ireki nahian egiten zuen indarra eta azkenean, atea irekitzen zuenari ur guztia etxe barrura sartzen zitzaion.

Aukera izanez gero, haurrak etxe ondoko txoko batean gordetzen ziren bihurrikeriaren ondorioak ikusteko. Txokoa etxetik gertu egoten zen dena ondo ikusteko, eta aldi berean, edozein unean lasterka ateratzeko aproposa izaten zen. Jakina, ondorioak bertatik ikusteak eta hain gertu egoteak gaiztakeriak berez sortarazten zuen zirrara areago-tzen zuen. **BORDAUNDI**

Pasaiko herri-aldizkaria

boranika



2002ko uztaila

29 zenb.

opari zoragarriak eramán itzazu

oakley metala:
oakley gilitzarako eskulaboa opari

oakley pasta:
oakley pegatina eskulaboa opari

eta gainera...

OAKLEY eskusiban zuretzat

oakley erloju haten zoketan sartuko zara



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS
beti zurekin

laburrean

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaiaiko herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaiaiko Udala



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

EL SISIPI
OBREN ONDORIOZ:
Eskalantegi 48-AN
GAUDE, PROBISIONALKI.
BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MALATZAREN LEHENA 3. 20110 PASAI ANTZO GIPUZKOA
943 530838.

Loradenda MAIALEN
Ezkontzatarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTZO

IPARRA taberna
M I E H
Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTZO



4-11. BARRUTIZ BARRUTI

12. ELKARRIZKETA Arrokaundietako Gazte aterpeaz 'Patxi Pirata'rekin

16. KALE-INKESTA Nora joango zara aurtengo oporretan?

18. ERREPORTAJEA Pasaiaiko euskararen kale-neurketa

22. OROKORREAN

23. KRITIKAK

24. HORRELAKOAK GINEN ETA IRAGANARI BEGIRADA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker gracias a ti

donibane

Puntaseko pasealekuaren konpoketa

Puntaseko pasealekutik bueltatxo bat ematen duen edonork ikus dezaken bezala oso egoera txarrean dago: zuloz josita, eserleku gabe, argirik gabe...Egoera negargarri hau konpontzeko asmotan dabil Pasaiako Udala eta horretarako Berritze Egitasmo bat aurkeztu du. Egitasmo hau Victor Hugoren Etxean eta Hirigintzan dago ikusgai. Orohar, egitasmo honen arabera pasealeku guztian zehar zoru berria jarriko da. Honekin batera eserleku eta zakarrontziak jarriko dira ere. Argiteriari dagokionez, Bonantza bitartean farolak ipiniko dira eta hemendik aurrera balizak (lurrean jartzen diren fokoak). Esan bezala, hau egitasmo bat da, espero dezagun egitasmoa errealitatea bihurtzea.



br-29

4

BARRUTIZ BARRUTI

majestik
 Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
 Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
 Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
 Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
 WEB: <http://www.iturgaiz.com>
 E-mail: majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m²-ko erakusketan.

Gastibelza, Ontziolako emaitza berria

Uztailaren 10ean uretaratu zen Gastibelza, Ontziolan egindako enbarkazio berria. Gastibelza izena, Victor Hugoren poema famatu batetik hartutakoa da. Ontzi hau XIX. Mendeko "batel handi" bat da, arrantzarako erabiltzen zen ontzi polibalentea. Behin Antxoa eta Atunaren sasoia bukatu, traineruetako koadrilak banandu eta ontzi hauetan aritzen ziren arrantzan. Traineruan arrantza egiteko baina eskifai txikiagoa behar zen eta honenbestez errazagoa zen berau osatzea arrantzara joateko. Batel honekin txipiroiak, olagarroak, miserak, kongrioak eta antzekoak arrantzatzen zizuten. Gastibelza egiten zazpi hilabete egin dituzte. Batela, zazpi metrokoa da, bi belarekin. Honenbestez, eskifaia osatzen zuten bost lagunak arraunean eta bela bitartez aritzen ziren arrantzean. Baina Gastibelza ez da Ontziolan egingo den mota honetako ontzi bakarra. Aitzitik, bertan eraikiko den hurrengo ontzia berdina izango baita. Horrela, bi enbarkazio hauen arteko lehiak egiteko aukera izango da, bai arraunean eta bai belarekin.



br-29

5

BARRUTIZ BARRUTI

komikia Aitor Puy



san pedro

Sagardua eta Daikiriak laister Askorretan

Baita ondarra, eguzki-kremak, bainujantziak, tangak eta gauza gehiago. Hori da behintzat herriko jende askok nahiko genukeena. Eta hauetako batzuk, taldea osatuz, genukeen hori egi bihurtzeko lanean hasi dira jada.


Duela gutxi herriko txoko gehienak karteletan bete dituzte. Inprimakian, orain dela 40 urteko Ondartxo hondartza-Kondemasti kala berreskuratzeko deia luzatzen dute. Talde honen asmoa herri plataforma bat osatzea da, bitartean, alderdi politiko eta erakunde ezberdinetara hurbildu dira beraien asmoak azaltzera. Dirudenez ideia hauek nahiko ongi hartuak izan dira, baina hauetako alderdi eta erakundeetatik inork ez du berea egin, oraindik, hondartza berreskuratzeko ekimena.

Taldekideek adierazi digutenez, ideia ez da gaurkoa, ■ Karteletan taldeak aireratutako fotomontaia.

1999ko irailean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Itsasertzaren Antolaketa eta Babeserako Planaren aurrerapenean azaltzen da "Kondemasti (Pasaia) BERRESKURATU BEHARREKO HONDARTZA ETA KALA bezela.

Hau guztia kontutan harturik eta Pasaia aldean jadanik onartuak dauden hainbat planen aldean: Jaizkibelen Superportua eraikitzeke plangintza, Pasaia Badi Biziberritzeko Urban Plana, lonja berriak eraikitzeke plana edota Eusko Jaurlaritzaren Pasaia Ekialderako Izartu plana...Talde honek zera galdetzen du: Ez al zaio tokatzen San Pedroko herriari Torretik Kalpararainoko pasealekua izatea eta hemendik Puntetaraino, Kondemastiko Kalan hondartza berriro ezartzea?

Galdera biribila, Pasaia Ontziolak Bordala-bordan kokatu direla ikusita eta almejak berriro ere Torreatzen hazten ari direla antzemand.



■ Bilbaotar bi Ondartxoko hondartzan 1957ko uztaillaren 27an.

Que viva Mexico Mercedariak!

tean, parroko abesbatzak Kongregazio mexikar honen himnoa abestu zuen. Geroxeago, garai bateko eskolako argazki erakusketa eta lunch berezia dastatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek. Hauen artean, ez ziren falta izan Mexikotik etorritako Kongregazioko Ama eta

obra dotoreak egiten, esku lanak, vainika mexikarrak, frantseza, eta mekanografia.

Gaur egun monjek Herreran duten eskola-guarderian ari dira bere lanak betetzen. Urte askotarako izatea.

Ito eta hilko da

Guk ere halako lotsa pittin bat sentitzen dugu frontoiko petrill aldeko lehenengo ezkia ur eta mikrobio estrainoz beteta ikustean. Hilabete dexente daramazki horrela, eta sapaburu nuklear eta ur us-telduek zuhaitzaren zainak akabatzen dituzten bitartean, ez legoke erabat gaizki egongo lorezaintza asunto hauetan erantzunkizun aparta dutenek, zuhaitz pareko lurra ber-mugitu edo drenatuko balute, besterik ez bada, zuhaitzak fotosintesia patxada ederrian egin dezan.



75 Aniversario



Hnas. Mercedarias del Santísimo Sacramento (Mejicanas)

28 Julio (Domingo)

Solemne Eucaristía a las 11:30 h. en la Parroquia de San Pedro Apostol (Pasajes San Pedro)

Uztailaren 28a urteurren egun handia izan zen gure lur honetan. San Pedroko herriak omenaldi goxo eta hunkigarria eskeini zien "Hermanas Mercedarias del Santísimo Sacramento" Kongregazioko monja mexikarrei. Monja hauek izan ziren, hain zuzen ere, 1927an San Pedro kaleko Lertxundi Etxean "Colegio Eucarístico de Sta. Teresa" eskola eraiki zutenak.

Eskola sortu zeneko 75 urteurren honen ekitaldi nagusia elizan eman zen. Bertan, beste gauza askoren ar-

Idazkari Nagusi Orokorrak, beste komunitadeko hainbat Ahizpa, eta, nola ez, eskolako ikasle izandako pertsona ugariak.

Mexikon 1927an ematen ari zen erlijio persekuziotik iheska hona etorritako Ahizpa hauen hezkuntz iharduerak oroitzapen itzela utzi du sanpedrotar askoren artean. Baita, Lertxundiren Etxeko bostgarren pisura igotzeko eskalatu behar ziren 103 eskailerek. Hauek pozik igotzen zituzten umeez, hantxe ikasten baitzituzten, besteak beste, antzerki

**jar ezazu
zure
iragarkia
Brankan**

**HAUXE BAI DELA
MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA
San Pedroko Bodegoia**

MUGURUZA ARDOAK



ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak
Urte Berri on!!

Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

San Fermin jaiak 2002 iruditan



Muebles
Altzariak **RUIZTEGUI, s.a.**

MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA

Nafarroa hiribidea, 15
Tfnok.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANT XO

PITXI TXULO
ՋԱՏԵՒՔԱ-ՏԱԲԵՐՆԱ

EGUNEKO
MENUGA

ETA
BARTA
ZERBITZUA



Eskalantegi, 118
Tfno: 943 520 770

Molinua Anzoa
PASAI ANT XO

AMIO
Taberna



1934

Gure Zumardia 27-20110-Pasata (Gipuzkoa)

URT XINTXA
BULL

URT XINTXA BULL, S.A.

Gipuzkoako English Mark
Darts operadoreak

Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Gaiherri



C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANT XO


MIMOS
TABERNA



tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

trintxerpo

Karmengo jaiak 2002 ifuditan



Arrokaundieta aterpea udako bisitariak hartzeko prest

TESTUA OLATZ MITXELENA



Udara iristearekin batera, Arrokaundieta aterpeak kanpoko bisitariarentzat zabaltzen ditu ateak. Bidaiariek, bertan ostatu hartzeko aukera izaten dute irailaren lehendabiziko hamabostaldira arte, eta bertako zein ingurukoek, Jaizkibel menditik buelta egin, eta, asteburuetan aterpean bertan zabaltzen den tabernan mokaduak eta traguak hartzeko parada. Bertaratzen denak giro atsegina eta paraje ederrak ziurtatuak ditu.

Arrokaundieta aterpetxea zabaldu zenetik bi urte igaro direnean, bertaraino hurbildu nahi izan dugu 'piraten etxea' kudeatzen duten hezitzaile eta langileekin hitz egitera. Bertako funtzionamendua ezagutu, orain arteko esperientziak jaso, eta, udako zein datorren ikasturterako asmoak bildu nahi izan ditugu kanpoko hainbeste jende hartzen duen txoko Pasaitar honetan egiten den lana gertuagotik ezagutzeko asmoz. Aser Lertxundi, 'Patxi pirata' ezizenaz ezagunagoa, aterpeko koordinatzailea da, eta berak kontatu dizkigu funtzionamenduaren nondik norakoak. Berarekin batera, Aitor eta Aintzane topatu ditugu. Gu iristeko momentuan, aterpea erabilera librean zabaltzeko lanetan ari dira buru belarri. Izan ere, Kutzak antolatu eta Aranzadik gidatzen duen auzolandegian aritutako gazteek alde egin berri dute, eta, ziztu bizian aterpea erabilera librean hasteko prest utzi behar baitute.





■ Bai Oarso bailarako baita Donostialdeko paisai ikusgarriak ikus daitezke Arrokaundietako aterpetik.

ARROKAUNDIETAKO UDAKO ESKAINTZA

Arrokaundietako aterpeak hiru erabilera modalitate ezberdin ditu, eta horietako bat da udan nagusitzen dena: erabilera libre, alegia. Uztailaren azken hamabostalditik aurrera, aterpeak kanpoko bisitariak hartzeko prestatzen da, eta era horretan funtzionatzen hastearekin batera, taberna eta jangela zerbitzuak ere eskaintzen dira asteburuetan. Nahi duen pertsona orok har dezake ostatu aterpean, pentsio erdian (10 egin eta gosaria) edo 10 egiteko soilik. Aterpeak, 18:00etatik 21:00etara zabalduko ditu ate-

kusten dute.

BESTELAKO ERABILERA MOTAK

Udako erabilera libre, modalitate bat da, baina Arrokaundietak bestelako jardunen topaleku izan ohi da ikasturtearen zehar. Aterpea, Urtxintxa hezitzaile eskolak kudeatzen du, eta hori dela eta, neguko asteburuetan ohikoa izaten da aisialdiaren munduan lan egiteko heziketa jasotzen ari diren pertsona eta gazte taldeak bertan topatzea; begirale ikastaroak, zuzendariarenak... Ikastaroek tartea uzten du-



■ Aterpetxearen ondoan auzolandegian aritutako gazteek garbitu berri duten fuertea kokatzen da.

ak arratsaldero, eta bertan gaua igaro nahi duenak orduan agertu beharko du beratatik, edo, bertara azalduko dela esanez 651706761 telefonora deitu beharko du. Goizetan, 10:00etarako, gelak libre izanen dira, eta arratsaldeko 18:00ak arte itxi egingo da berriz aterpetxea. Hau izango da astebarruko ohiko funtzionamendua. Asteburuetan, aldiz, bertako taberna zabaldu egingo da, eta ostiraletik aurrera afari eta bazkariak eskainiko dira kanpoko jendearentzat.

Irailaren 15rekin, udako kanpainari aio esan, eta agurra fundamentuz ospatzeko jai bat egitea aurrei-

tenean, aldiz, etxea alokatu egiten zaie bestelako talde eta elkarteei.

Haur eta Lehen hezkuntzako taldeei zuzendutako programa da Arrokaundietan arrakasta handien duena. Programa honek ikasturtean zehar eskaintzen da, iraila bukaeran hasi eta urrira arte lehenengo, eta otsailetik hasi eta ekaina amaierara arte ondoren. Bi edo hiru egunetako egonaldiak eskaintzen dira nekazal eta baserri eskolen ereduari jarraituz prestatu den programa honetan, eta animazioa eta jolasaren bidez, itsas inguruko euskal hiztegia lan-



■ Aintzane eta Aitor, Patxi pirataren abenturen lekukoak.

tzea da programaren xede nagusia. Horretarako aterpetxeko hezitzaileek jolas eta ekintzaz lepo betetako egonaldiak prestatzen dituzte; auzolandegietan berritzen ari diren gotorlekura bisita eta bertan ipuin kontaketa, loro-jolasa, planetariuma irteera, txalupan badiari buelta, mendi txangoa, abestiak, galdera lehiaketak... beti ere, adinaren araberrako ekintza moldagarriak eskaintzen direla.

BI URTEETAKO BALANTZEA

Aterpea zabaldu zenetik, jende mordoia igaro da ber-

tatik. Haurren programarekin 1600 ume inguru izan ohi da urtero; formazio ikastaroekin 1000 lagun inguru eta auzolandegian 50 lagun inguru ibili dira iaz eta aurten.


Tabernak espero ez zuten harrera izan zuen iazko udaran, eta, uztailaren lehen hamabostaldian eguzkia atera den egun gutxietan, asko izan dira aurten ere tabernaz galdezka hurbildu zaizkienak. Aurten ere iraila arte izango dute parada. Bidaiarientzat, oraindik ere, Arrokaundietak ez da aski ezaguna. Aterpea berria da, eta denbora gehiago beharko da jende artean ezaguna egiteko. Hala eta guztiz ere, baikor ageri dira, izan ere, orain arte bertan ostatu hartu izan dutenak gustura gelditu baitira. Aserrek kontatu digunez, iaz Albaola elkartekoekin izandako bretoiek eta irlandarrek bertan izan ziren, eta horietako lagun bat, Galiziatik bueltan aterpetxera bueltatu zen bertan pare bat egun gehiago emateko. Gainera, propaganda bide berriak landu dituzte eta ziur urtez-urte ezagunagoa egingo dela.

DATORREN URTERAKO ERRONKA

Zeregina ez bazaie falta ere, bertara gazteak nola erakarri da, datorren udarako erronka nagusia. Aterpeari oraindik bizi gehiago emateko gazteak hurbildu nahi dituzte, eta, horretarako Pasaia inguruko taldeekin harremanetan ari dira gazteentzako abenturazko eskaintza bat prestatzeko; piraguak, belauntziak... diruz babestutako programa izatea gustatuko litzaieke, eta, ezinezkoa balitz bidaiaria agentziekin aurrera ateratzen saiatuko lirake.

Ageri denez, asmoak eta ilusioak ez zaizkie falta Jaizkibelgo piratei.

■ Aser Lertxundi edo Patxi pirata.



*"Txalupan sartuta
goazen itsasora
Pasaia uretan
Batetik bestera
Adi marinela
Heldu arraunari
Ez gaitezen izan
Arrainen janari"
(Haurrei irakasten
zein Piraten etxeko
sei abestietatik bat)*


Nora joango zara aurtenngo oporretan?




1



2



3



4



5




6




7



8



9



10



11



12

1 Maider Fernandez.
25 urte. Langilea.

Mallorca aldera joango naiz egun batzuk igarotzera, hango eguzkiaren bila. Hemen nagoen bitartean, noski, herrietako jaietan ahalik eta gehien ibili.

2 Manoli Quintans.
36 urte. Kamarera.

Galiza eta Caceres aldera goaz, hango senideek haurra ikus dezaten.

3 Iñaki Edroso.
Argazkilari eta telebista kamara.

Alpeetara familiarekin, mendiak egitera eta ondo pasatzera.

4 Endika Landazuri.
30 urte. Injenieroa.

Oraindik ez dakigu nora joango garen baina baliteke Almeria aldera joatea. Iaz lagun batzuk han izan ziren eta oso polita zela esan ziguten, merezi zuela.

5 Joseba Mujika.
32 urte. Alanbrea.

Tourrera etapa bat ikustera joan nintzen, eta bestela, San Juanen geldituko naiz.

6 Rosi Azores.
52 urte. Etxekoandrea.

Hemen geldituko naiz uda osoan, ez-baitugu kanpora irtetzeko aukerarik. Hemen ere uda era majoan aprobetxa daiteke: hondartza, jaiak, pasiatzera irten...

7 Joseba Ouviaña.
35 urte. Telefonikako langilea.

Aurten ez gara inora joango, Euskal Herrian geratu beharko dugu.

8 Josian Elizazu.
Autoeskolako irakaslea.

Frantsez Pirineotara. Bertan arnasa ona hartzeko eta lasai egoteko.

9 Migeltxo Otazo.
46 urte. Ordenantza.

Galiziara joango gara, Cangas de Morrazora hain zuzen. Bertan hartuko dugu ostatu. Nire ustez, Galizia zoragarria da, 15 urte daramatzat hara joaten eta izugarri polita da.

10 Jose Mari Ameztoy.
57 urte. Harakina.

Marbellara, eguzkia hartzera eta "de martxa".

11 Ilargi Ormazabal.
8 urte. Ikaslea.

15 egunez Donostian egon naiz oporretan jada.

12 Asier Maritxalar.
25 urte. Langabetua.

Lanik gabe nago eta gozatzea izango da batez ere egingo dudana baita herriz herri jaietan giro on bila ibili ere. Beharbada koadrilakoekin mendira joango naiz egunen batetan, eskalada egitera.

Pasaiako euskararen kale-erabileraren neurketa

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen

neurketa, hain zuzen ere. Hau horrela izanik, 2001 urteko azaroa eta abenduan SEI elkarteak aipatu kale-neurketa burutu zuen Pasaiako kaleetatik zehar, eta hona hemen hauek eginiko lanaren laburpena.

KOKAPENA

Neurketak, zehazki, azaroaren 7an (asteazkena) hasi ziren eta abenduaren 16an (igandea) amaitu. Pasaiako sei zonalde zehatzetan egin ziren neurketak: Donibane zaharrea, Donibane Meipi aldean, Trintxerpen, Antxon, San Pedro zaharrea eta San Pedroko Pobladoan. Zonaldeak aukeratzeko irizpiderik nagusia herrian dauden tokirik jendetsuenak direla da, kalean jende gehien ibiltzen den tokiak alegia. Neurketako egunak eta orduak hautatzerakoan herriko biztanle guztiak (potenzialki behintzat) neurtu ahal izateko ezarri dira.



Zazpi neurtzaile ibili ziren gure herriko kaleetatik neurketa burutzen, hauen metodologia behaketa zuzena izan delarik, hau da, hiztunak neurketaren momentuan erabiltzen duen hizkuntza jaso dute zuzenean, ezertxo ere galdetu gabe. Hitztunek, bada, ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jaso dute, horrela lortutako datuen subjektibotasuna baztertuz.


Neurtu dena norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa hizkuntza izan da. Elkarrizketak dira behatu eta zenbatu direnak, guztiak, noski, bi lagunen edo gehiagoren artekoak izanik. Une horretan hizketan ari denaren hizkuntza neurtu da talde osoarentzat, suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtua izan den hizkuntza berean egingo lukeela.

Aipatu beharra dago ere 'Pasaiarren' erabilera baino, Pasaiako kaleetako izan dela neurtua. Izan ere ezin izan da ziurtatu kalean neurtuak izan diren hiztun guztiak pasaitarrak direnik, ezta zonalde bakoitzean behatutako hiztunak zonalde horretakoak direnik ere, behaketa zuzenaren metodoaren erabilpenak hau ezin baitu bermatu.

EMAITZAK

2001eko neurketa honetan jasotako arabera, Pasaiaren euskararen kale-erabilera %13,4 da; alegia, kalean hizketan neurtu diren 100 elkarrizketetatik 13 izan dira euskaraz, eta gainerakoak ez. Pasaiaren euskararen ezaugarri portzentaia %31,7koa da (1996ko datua).

Erabileraren bilakaera Pasaiaren



1991tik 2001era euskararen erabileraren neurketek gora-beherak azaltzen dizkiguten arren (ikus grafikoa), garrantzitsuena joera orokorrean erreparatzea izan ohi da. Erabilerak urte bate-tik bestera oszilazioak izanik ere, beharakadarako joera da nabarmendu daitekeena; ez da behar bada nabarmen bat, agian, naina argi ikusten da nola hamarkada hasieran %16-18 inguruan kokatzen zen erabilera, azken urteotan %12-14 inguruan kokatuz.

ZONALDEKAKO EMAITZAK

Auzo edo barrutiak	Neurtutako hiztunak	Erabilera batez bestekoa
Donibane Zaharra	1581	% 31,4
Donibane Meipi	901	% 44,9
Trintxerpe	3440	% 3,9
Pasai Antxo	3052	% 9,9
San Pedro Zaharra	1404	% 18,5
San Pedro Pobladoa	1517	% 4,9

Herritarren leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzea xede izanik, behaketa herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan oinarritu da, aurrerago aipatu diren zonaldeetan alegia.

Auzo edo barrutiak	ERABILERA (%)										
	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
Donibane Zaharra	36,3	21,9	21,6	27,2	28	36,7	36,4	29,7	35,9	30,2	31,4
Donibane Meipi	11,9	15,1	9,7	18,5	20,5	17,2	16,4	28,2	28,4	27,5	44,9
Trintxerpe	11,6	3	5,8	7,5	3,9	1,2	3,2	3,3	3,2	7,9	3,9
Antxo	23,1	22,2	20,6	24,4	20,4	14,2	11,2	11,9	12,9	13,6	9,9
San Pedro Zaharra	36,8	22	19,4	18,4	14	17	10,6	11,1	13,9	12,9	18,5
San Pedro Pobladoa	10,9	4,4	3,7	7,6	2,2	1,7	3,7	1,6	3	1,3	4,9

Udalerriko barruti eta auzo guztiak hartu dira kontutan.


Aurreko orriko koadroan ikusi daitekeen bezala, Donibaneko bi zonaldeetan jaso da erabilera indizirik altuena, eta baxuena berriz, Trintxerpen. Horrenbestez, Donibane Zaharrean (Bonantzza aldea, Santiago Plaza, Donibane kalea aparkalekuraino) behatutako erabilera Trintxerpen baino 9 aldiz altuagoa izan da, datu bitxi bezala. Zonaldekako erabileraren bilakaerari begiratzan badiogu (gainekaldean dagoen koadroa), 2001 urtean lortutako datuak berresten dira.

ADIN TALDEKAKO EMAITZAK

Neurketako datuak adin taldeka bereiztuak jaso dira ere, honela banatuak izan direlarik:

Haurrak: 2 urtetik 14 urte bitartekoak
Gazteak: 15 urtetik 24 urte bitartekoak
Helduak: 25 urtetik 64 urte bitartekoak
Adinekoak: 65 urtetik gorakoak

Adin taldeen bilakaera erabileraren




Diagraman ageri den moduan, alde nabarmenez euskara gehien erabiltzen dutenak 14 urte bitarteko haurrak dira. Adin talderik gazteenetik adinekoenera ale nabarmena badago ere, kezka-garria dena haurren erabileratik gazteenera dagoen jautzia da, ia 14 puntuko aldea egonik, hain zuzen ere, adin talde batetik bestera. Hona hemen bilakaeraren taula 1991tik 2001era:

GENEROAREN ARABERAKO EMAITZAK

Jasotako datuen arabera, hiztunaren generoak, hots, hiztuna emakumezkoa edo gizonezkoa izateak ez du eragin adierazgarririk auskararen erabileran; emakumezkoek 0,7 puntutan gehiago erabiltzen dute. Dena den, aurreko urteetako neurketekin alderatzen jarrita, generoaren arteko erabilera desberdintasuna zertxobait gutxitu dela esan dezakegu. Izan ere, 1994an emakumeen aldekoa zen baita ere diferentzia, orduko hartan aldea 2,4 puntutan kokatuz.

Generoaren eragina erabileran



Gazte trebeen bila gabiltza ikasketa erabilgarriak egiteko lanbide baliagarria lortzeko

ITURGINTZA



- >> Burdina, kobre eta polietilenoazko osasun-instalazioak.
- >> Hustubideak.
- >> Aparailuen muntatzea.
- >> Eztainu-Zilar, platerak, berun eta zink soldadura.
- >> Berokuntza.

SUKALDARITZA



- >> Zopak, kremak eta barazkiak.
- >> Janarien manipulazioa eta ebaketa.
- >> Hondoak eta oinarritzko saltsak.
- >> Haragi eta arrain platerak.
- >> Postreak eta gozokiak.
- >> Menuak osatzea eta nutrizioa.
- >> Platerak aurkezteko moduak.
- >> Miniaturazko sukaldaritza.

Hamabi urtez buru-belarri gure herriko gazteekin: %70rrak lanean.

Lanbide ikasketan oinarrituta, prestakuntza orokorra eta tutoritzak azpimarratuz baita ere.

Lanbide Hastapeneko hartzailak: 16 urtetik 21era bitarteko Pasaiako neska mutilak, eskolatik kanpo eta DBH Graduadorik gabe daudenak.

kastaroaren iraupena: bi urte (bi mila ordu).

Froga bat gainditu eta gero, maila erdiko zikloetan murgiltzeko aukera.

kastaroak bukatzen direnean eskualdeko enpreetan praktikak egiteko aukera izango da.

Non matrikulatu

Euskadi etorbidea, 27
behea. Trintxerpe.
Tl.: 943 398 800



Pasaiako Udala

lanean ari zarela, zure bizitza hobea izango da

K R I T I K A K zuk zeuk!

ZINEA '9 DIAS'

Zuz.: Joel Schumacher. Akt.: Anthony Hopkins, Chris Rock.



Ohitura 'onak' ez galtzeko oraingo honetan ere mendebaldeko herrialdeetakoak izango dituzte etsai Anthony Hopkins eta Chris Rock-ek, Joel Schumacherren gidaritzapean.

Hamaika aldiz ikusitako istorioa aurkezten digute, traizio desberdinez osaturiko bomba nuklear baten inguruan kokatzen dena. Horretarako, beste hamaika aldiz ikusitako bikotea aurkezten digute; bata esperientziaz beteriko pertsonaia, hotza, serioa (Anthony Hopkins) eta bestea, trapitxeroa, eta filmeari kutsu komikoa ematen diona (Chris Rock). Azken honek 9 egun izango ditu, berak ezagutzen ez zuen bere anai bixkiak (hil egin dute) bete behar zuen negoziatze papera burutzeko, 'gaiztoak' aldatzarekin ohartu gabe. Akzioz beteriko filma dugu hau, luxu handiz eginikoa, eta orokorrean nahiko filme entretenigarria, hala ere, zerbait desberdina eta originala bilatzen duzun horietakoa bazara, ez du batere merezi ikusteak.

Badirudi azken hilabetetan New York-ek fimeetan izan duen tratamendu berezi hori iadanik galtzen ari dela, oraingoan ere, 'terroristen' helburu nagusizat agertzen baita.


Lokalizazioak eta argazki tratamenduak oso onak.■



IRAITZ IGARTZA

LIBURUA '5 IDAZLE'

Hasier Etxeberria



Hiztegi 'Freudiarraren' arabera, Mamuak, norberaren kontzientziapen ezkututzen diren gatazkak dira, gogoaren erratzaz geure baitako zabortokira jaurtikitzen ditugunak, hauek gailendu ditugulakoan.

Hasier Etxeberriak berriki plaza-ratu duen '5 idazle' elkarrizketa liburua ikaragarri interesgarria da. Abagunea ere ez da nolana hiko; 5 idazletzar horiek aurrez-aurre ia edozertarako prest izatea, pentsaera alorreko altxor zoragarria da, zalan-tzarik gabe, Atxaga, Sarrionandia, Lertxundi, Izagirre eta Saizarbitoria, hontaz eta hartaz ari dira bertan.

Hala ere, eta testuingurua hain-tzat hartuta, irakurleak aitatu Mamu horien presentzia madarika dezake. Elkarrizketatuei dagokienean, berauen maitasun eta gorroto istorioak (Mamuak), ez bakarrik interesgarriak, baizik eta liburuaren beraren mamia, gorputza baldin badira, ez da elkarrizketatzailearekin gauza bera gertatzen, hasierako kokapen oker batetik bere Mamuak (zeinak erotik diren interesik gabekoak, tokiz kanpokoak eta arruntak oso) azaleratuko baititu, 'beste idazle baten kazetaritza saioa' bezala aurkezten baitu Hasierrek saioa 'kazetari baten kazetaritza lana' behar zuenean lortu duen emaitza ikusirik, guztiz azalekoa.■



LANDER GARRO

MUSIKA RADIOHEAD

Kontzertua, Donostiako Kursaal aretoa, 2002-07-31.



Radiohead taldea Ingalaterrako Oxford hirian sortu zen 1987 urtean, baina ez zuten 1993 urterarte diska-rik atera ('Pablo Honey'). Bertan mundu osoan ezagunak egin zituen abestia aurki dezakegu, 'Creep' abestia alegia. Abesti honek (diskan badaude beste zenbait kantu on), nahiz eta lehenengo diskan kalera-tua izan, taldearen norabide musikala aldatu zuen, orduanik 90 hamarkadako ereserki bihurtu zenaren antzeko abestiak egingo zituztela espero baitzen talde honetatik, 'ondo badoakigu abesti mota hau eginez, zergatik aldatu?' pentsatuko zutelakoan Radiohead-ekoek. Ez zen horrela gertatu. Entzuteko-errez, mezu garbi eta konplikaziorik gabeko kantetatik, bide intimista, korapilotsu eta azken finean bide luzea aukeratu zuten lan bakoitzean taldea osatzen duten bost kideek duten gaitasun musikal guztia utziz, arrakasta erretetik ihesean nonbait.

Hala ere, arrakastak ez ditu alde batera utzi, horren adibide gaur egun arte jarraitu duten ibilbidea (5 diska gehiagorekin), hauen zuzeneko lanean laburbiltzen dena. Kursalean eman zuten kontzertuan egoteaz zortedun nintzenaren sentazioak ez ninduen utzi honek iraun zuen 2 ordu pasatxotan; batetik sarrera azken orduan lortu nuelako eta bestetik kontzertu beragatik, han gineno eskaini baitziguten milurte berriko rockaren joan-etorrien berri. Portzieto, ez zuten 'Creep' abestia jo.



URKO ETXEBESTE